

Kontsumoak gutxiagotuz

Bizi jasangarriagoen alde egiten dugun aukeretan haziz



“Aldaketarako lehen pausua gure buruan ematen da.

Gure burua egitura menderatzaile eta kolonizatzaileetan lanpetua dugun bitartean, isilpeko onespina ematen diogu eta ez dugu alternatibak eraikitzen laguntzen.

Gure eguneroko ekintzetan dugun pentsatzeko joera aldatzen ez badugu, sistema mantentzen jarraitzen dugu”

Vandana Shiva



[Argazkia: Augustus Binu]

BAZEN BEHIN...



Garapenerako Lankidetzak GKE den Mugarik Gabetik (mundu mailako) globala eta interdependentea den garapenean sinesten dugu. Giza garapen osoa lortu nahian, hau da, emakume, gizon eta herrialde desberdinen artekoa zein datozen belaunaldientzat iraunkorra izango dena. Gertu dugun ingurutik garatzen dugu lana, gero gure mugetatik haratago zabaltzen dugularik.

www.mugarikgabe.org

Diseinu eta maketazioa: Alejo Moreno Sainz
Ilustrazioak: Adur
Itzulpena: komunika eta Mugarik Gabe

Lan hau aurrera eramaten lagundu duten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu.
2016ko martxoan

Argitaratzailea:




Finantziatzailea:



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-ND 4.0)
Lizentzia osoa: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.es_ES

“Jendeak luxuak zergatik eta zertarako behar dituen ez dakigun bitartean,
—biziraupenerako ezinbestekoak diren ondasunetatik harago—
ez gara desberdintasunaren arazoak
nolabait seriooki lantzen ariko”

Mary Douglas



Kontsumitzaileak ala kontsumituak?

Mugarik Gabe

Zergatik hitz egiten dugu kontsumoari buruz?

MUGARIK GABEtik, garapenerako lankidetzako gobernuz kanpoko erakundetik, kontsumoaz hitz egiten dugu, gure misioa herri guztientzat giza garapen ekita-tiboa eta jasagarria lortzea dela ulertzen dugulako. Na-zioartean dugun lankidetzako esperientziak, justizia so-zial handiagoa lortzeko helburuarekin, maila globalean ematen diren desberdintasunen zergatiak aztertzeraz eta pertsona batzuk pobreak -eta beste batzuk ez- izatearen arrazoiak salatzeraz garamatza. Benetan behar duguna modu autonomo eta kontziente batean kontsumitzen al dugu, edo saltzeko grinak kontsumitu gaitu, pertsona gisa ere salduz?

Mugagabea, baina era berean, denboran zehar mantentzea ezinezkoa den garapen ekonomikoa lortzeko kapitalaren, ekoizpenaren eta kontsumoaren eraldaketak harreman estua duten sistema kapitalista batean murgildurik gaude.

Kontsumo jendarte honetan, ondasunak, produktuak, kontsumitzen ditugun gauzak ez dira fruitu helduak bezala zuzentzetatik erortzen, horregatik, nola ekoiztu diren, zein baldintzetan fabrikatu diren, Giza Eskubi-deak eta ingurumena eta baliabide naturalak ez agortzeko, errespetatuak izan badiren gakoak erreparatu behar diegu. Espainiar estatua, adibidez, datu ofizialen arabera, Europar Batasuneko transgenikoen ekoizle handiena da, 97.000 hektarea baino gehiago landatuak dituelarik, horietatik, gehienak BT artoa dira.

Maila globalean existitzen den interdependentziari adi egon behar dugu, eta gure ekintzek, kasu honetan erosketen lotua, munduaren beste aldean eta gure inguruan, duten eraginaren jakitun izan behar gara.

Zergatik kontsumitzen dugu?

Igarotako garaian, Erdi Aroan zein Aro Modernoan, kontsumoak beharrak asetzea zuen helburu. Egun, ordea, bizi garen jendarte kontsumista da **eraikitzeaz eta behar berriak sortzeaz** arduratzen dena, oinarri ideologiko argi batekin. Nasaren arabera pertsona bakoitzak eguneko hau behar du: 980 gramo oxigeno, 2.000 edo 4.000 kategoria (emakume edo gizonezko izatearen arabera) eta 3.5 litro ur. Jada ez dugu bizirauteko erosten.

Postmodernitate aurreko gizarteetako aberastasun metaketak segurtasun eta ordena bilatu asmoz egiten ziren, modu solido eta iraunkor batean bistaraziz pilatutako guztia. Alabaina, gaurko, aberastasunak momentuan bertako desioak betetzeko interesari erantzuten dio, momentuan plazerak asetzeari. Balizko askatasunaren truke segurtasuna bilatzeari utzi diogu. Objektuak gal-korrak dira, zaharkitzea programatua dute, gure desioek bezala. **Gizarte kontsumistak ez du desioak asetzeko helburua, sortzeko baizik.**

Geldotasuna gehiago landu beharko genuke, harremanak gozatzea, komunitatea eraikitzea, horrela kontsumo-ra sarbiderik ez duten pertsona guzti horien bazterketa saihesteko. Gizarte eredu honi pribilegioz mozorrotutako betebeharrekin engainatzen ezin dugu utzi. “Kredituekin” bizitzeak ez gaitu zoriontsuago egingo.

Gauzen jabetze honek, beharrekiko erabilera beharrean, **iraunkorki ase ezina den jendartera** eraman gaitu, zoriontasuna gauzak izatea dela sinestarazi diguten gizarte batera, kasu askotan gauzek batera erabilera-rik ez dutenean.

Kontsumitzen dugun moduaren ondorioa

Zenbat eta desio gehiago sortu, gehiago kontsumitzen dugu, zenbat eta gehiago kontsumitu, gehiago ekoizten dugu, zenbat eta gehiago ekoitzi, gauza gehiago botatzen ditugu zaborretara, zaborretara zenbat eta gauza gehiago bota, baliabide natural gehiago txikitzen ditugu. Eta horrela, noiz arte?

Bizitza ulertu eta bizitzeko moduan gure kontsumoak dituen ondorio larrietatik harago, ugariak dira gure inguruan eta lurrian sortzen ari garen efektuak. Yann Arthus Bertrandek zerutik bistaratutako "La tierra" dokumentaletan dioenez, natura mehatxatua dago, 30 urtetan baliabide naturalen %30 galdu da, 4 ugaztunetik 1, 8 hegaztutik 1, eta arrainen herena desagertzeko arriskuan zein mehatxupean dago.

Elikagaiek eta beste produktuek milaka kilometro igarotzen dituzte gure eskuetara iritsi arte. Produktu lokalen merkatuak beharrezkoa ez den kutsadura hori saihesten du, eta hori da sustatzeko dugun arrazoietakoa bat, arduratsua gure kontsumitzeko modu bezala.

Nola lortu dute gure kontsumismoa?

Sistema kapitalista/heteropatriarkatu honekin, kiribil edo espiral horretan ekoizpena-kontsumo-bota-ekoizpena-kontsumo-bota-ekoizpena-kontsumo-bota-ekoizpena-kontsumo-bota-ekoizpena-kontsumo-bota-ekoizpena-kontsumo-bota-ekoizpena-kontsumo-bota-ekoizpena-kontsumo-bota-ekoizpena-kontsumo-bota... gu mantentzea, engainatuta soilik lor dezakete.

Publizitateak forma bakarreko egiten gaitu, aniztasunarekin bukatzen du eta gure individualismoa areagotuz, estereotipo sexistak erreproduzitzen, indarkeria sinbolikoa, eta emakumea eskubideen subjektu bezala ikusezin bilakatuz, askotan desioen objektu bihurtuz.

Ekoizpena eta kontsumo genero ikuspegi batetik birpentsatzeko: nork erosten duen, zertarako/nork erosten duen, zer erosten den, noiz erosten den (ordutegia), non erosten den eta zergatik (estereotipoak/publizitatea) erosten den hausnartu beharko genuke.

Eredu honek emakumeengan eragiten dituen ondorioak larriak dira:

- Pobreziaren feminizazioa
- Lanean bereizketa sexualaren mantentzea
- Emakume aurpegidun migrazio mugimenduak
- Gorputz femeninoaren merkantilizazioa
- Emakume, gizon izatearen zein beraien erlazio erduen estandarizazioa
- Harreman ezberdinen erreproduzioa
- Tasa Arrosa, produktu berdinagatik gizonen baino zenbaterako handiagoa ordaindu

Kontsumitzailearen eskubideak

Oraindik hiritar eskubideak eraginkorrak egin ez direnean, kontsumitzailearen eskubideez hitz egiten dugu, Zygmunt Baumaneko dioen bezala, *hiritarraren estatusa nagusiki, kontsumitzaile gisa dugun gaitasunak, eta ez ekoizle bezala, definitzen du.*

Mugarik gabetik mundu solidarioagoa eta kooperatiboagoa posible dela uste dugu, horretarako aukerak badaudela, bizi eredu jasangarriak eta ekitatiboak aurrera eramanez ditzakegula, beste pertsona batzuekin, planeta-rekin eta etortzearen dauden belaunaldiekin.

Kontsumo ohituren aldaketaren bitartez bakarrik, ezinbesteko baldintza baina urria, sistema honen aldaketa lortuko ez dugula badakigu. Izan ere, arazo globalek irtenbide globalak behar dituztela esaten baitigute. Baina, maila mikro zein makroan aldaketa, ekonomiko, sozial, politiko, juridiko, emakume eta gizonen arteko harremanetan ... , txikiak eman daitezkeen behartu dezakegu. Kontsumo arduratsua bat egin dezakegu. Bizi eredu jasangarriagoetarako trantsizioa has dezakegu, gure gizarteetan, gure inguru naturalean eta gure buruarekin.



[Irudia: ConsumeHastaMorir]

JIM JARMUSHEK
BEHIN ESAN ZIDAN:
"AZKAR, MERKE ETA ONA...
AUKERA ITZAZU HAUETATIK BI.

AZKARRA ETA MERKEA BADA,
EZ DA ONA IZANGO.

MERKEA ETA ONA BADA,
EZ DA AZKARRA IZANGO.

AZKARRA ETA ONA BADA,
EZ DA MERKEA IZANGO".

AZKARRA,
ONA ETA MERKEA...
AUKERA ITZAZU
BI HITZ GAKO
BIZITZEKO.



TOM WAITS

Beste era batera kontsumitu, beste era batera bizi

Conchi Piñeiro, Altekioko arduraduna

Zer da ALTEKIO?

Duela ia 7 urte sortu genuen Altekio (náhuatl-etik eratorria, tequio, auzolanaren parekoa da), onura komun baterako autoenplegu kolektiboa bilatzen dugun pertsonekin osatutako ekimen sozial kooperatibo bezala. Gure lana jasangarritasunerantz eraldaketa prozesuak erraztea da, jasangarriak diren kontsumoak eta bizi erak sustatuz, maila pertsonalean eta sozialean, ingurumena, garapen komunitarioa eta ekonomia soziala landuz.

Zergatik kontsumoa eta bizi erak?

Kontsumoan egituratzen da kapitalismoan murgilduta dagoen gure gizartea, “kontsumoaren gizartea” izena hartuz. **Kontsumo kontzientea ikusezin bilakatzen dutenari arreta jartzen dion bizi modu edo bizi erak praktikatzea da, kontsumitzeko tendentzia nagusietatik urruntzen diren irizpideak barnebiltzen ditu.** Kontsumo eraldatzaileak bestelako logikak edo egiteko moduak dituzten proiektu edo ekimenen sorkuntza bultzatzen du, bizi era zainduak eta jasangarriak sustatzen ditu, pertsonen arteko harremanak eraldatzen dituenak, gurekin batera, eta bestelako izaki bizidunekin, munduarekin bere osotasunean. Bizi dugun krisi anitzei erantzuteko modu bat da (ekologikoa, ekonomikoa, zaintzena eta abar), osotasunean, zibilizazioaren krisiarena.

Nola eragiten die emakumeei?

Krisiek bereziki emakumei eragiten digute; guzti horietan protagonistak gara. Krisi hauek elkar elikatzen dira, gizarte eredu heteropatriarkatu, kapitalista eta xenofoboaren krisiak direlako, Sira del Riok azaltzen duen bezala: *“Zaintzen beharren bidez konpontzen zen eredua balantzan dago. Emakumek, haien denbora eta energia guztia ordaindu gabeko lan honi eskaini ziotenak, lan merkatu maskulinoan masiboki sartzen hasten dira, beronen egitura inor zaindu behar ez duen pertsonentzako diseinatua dagoelarik. Era honetan, merkatuaren logika eta zaintzen arteko tentsioa intentsitate handiarekin azalerritzen da, eta emakumeak tentsio hori haien gorputz propioan esperimentatzeari ekiten diote, batzuen exigentzien eta beste eszenatoki baten arteko borroka eremu bilakatuz. Gertaera honek, inorentzako oharkabean pasatzen ez de-*

*nak, “kontziliazio” lege eta politikak deiturikoekin konpontzeko intentzioa du”*¹. Amaia Perez Orozcok erantsen du zaintzen kate globalak deiturikoak sartzen direla jokoan, zaintza lanez arduratzeko haien jatorrizko herrialdeetatik migratzen duten beste emakume batzuek osatua, bere etxe propioan bizirauteko estrategia gisa².

Zaintza lanak merkatuek ikusiezin bilakatu dituzte, baina ezinbestekoak dira sistemarentzat, eta Dolores Comasek azaltzen duen bezala, “afektuaren ekonomia” osatzen dute zentzu bikoitzean: balore ekonomikoagatik (merkatuak edo Estatuak egiten dituenen adierazia geratzen dena) eta gastu publikoa ekonomizatzen dutelako familia denean berauek burutzen dituen³.

Arreta jarri behar zaio “ikusezina” edo “isiltasunari”, adibidez, ekoizpen-banaketa-kontsumo-txikitze kateari. Kate guztia begiratzea ere zertxobait urratzailea da. Kontsumoa ekoizpenetik bereiztea⁴, pribatu-kontsumoaren arteko rolak banatzearekin lotu daiteke (rol tradizioaletan emakumei lotua), eta publiko-ekoizpenarekin ere (rol tradizioaletan gizonari lotua), hau da, dikotomietan berrerortzearekin. Dena dela, ezinbestekoa da osotasunari begiratzea, baita urrats horietako bakoitzaren harremanei ere.

Zer bilatzen du Kontsumo Kontziente eta Eraldatzaileak (KKE)?

KKEtik harreman guztien eraldaketa bilatzen dugu, horretarako ezinbestekoak dira feminismoak, gizarte kapitalista, heteropatriarkatu, xenofobo, klasista eta abar batean bizi garelako. Hau da, diskriminazio ezberdinek ematen dizkigute bestelako zein irizpide edo balore aplikatu dezakegun behar bat nola ase erabakitze-ko orduan: kontsumoaren oinarrian dauden beharrak

1 <http://www.rebellion.org/hemeroteca/economia/040308sira.htm>

2 http://www.feministas.org/IMG/pdf/Cadenas_Globales_de_cuidados_-_Pre-guntas_para_una_crisis.pdf

3 http://www.eldiario.es/agendapublica/impacto_social/crisis-cuidados_0_24775381.html

4 Firat-ek (1991) Grover eta al-ek (1999) aipatua duela hainbat hamarkada lantzen zuen ideia da



[Conchi Piñeiro | Argaskia: Jorge Navacerrada]

bilatuz edo benetan zer den behar dudana identifikatuz, galkorra den asebetetze sentazioa edo balore bati lotutako produktu bat era askotan ase daitekeen behar batekin nahastu gabe, kasu askotan erosketatik edo merkatutik pasatu behar izan gabe gainera. Feminismoek bizitza hobe bat bilatu dute diskriminazioa sufritzen duten pertsona guzti horientzat, ez bakarrik emakumeentzako. Gainera, botere dinamikak elkar-tzen diren egoerak azaleratu dituzte, interseksionalitatea bezala, hots, diskriminazioen multzoa (esaterako genero, etnia edo klase diskriminazioa emakume indigena batzuen kasuan). Diskriminazioen batuketa ezerezetik harago doan modu berean; ikuspegi ezberdinak zaintzen dituzten ekoizpen irizpideen batura da (ekitatea, justizia, jasangarritasuna...), eredu ezberdinetara hurbiltzerako orduan zein gure bizitzetako aukerak, kulturak, espazioak... area-

gotzeko orduan emaitza handiagoak sortzen dituen.

Nola eragiten dute kontsumo ereduak emakume eta gizonezkoen sozializazioan?

Publizitatea baldin bada kontsumoaren erlojuari soka ematen dion mekanismoa, beste gauza batzuen artean, “idealarekiko” edo “sozial-

“Garrantzitsua da eraikitzen ari garen alternatibei bestelako begiradak jartzea: ekoizpen ekologikoa, agroekologia, ekonomia solidarioa, finantziario etikoa...”

ki desiragarria” denarekiko eredu sozialetara ez iristeko etengabeko aseezintasunarekin jolasten duelako da (edertasun eredu jakinak, harremantzekoak, arrakasta soziala izatekoak...). Etengabeko kontrol soziala ezartzeaz gainera, objektu bihurtu eta estereotipoak indartzeko balio duten arau edo aginduak dira. Emakumeekin, publizitaterako irudi nagusienarekin, gure gorputzekiko jabetzaren ideia patriarkalak errepikatzen dira, edo mezuetan indarkeria matxista erreproduzitzen da era ezberdinetan. Pertsonoi, emakume edo gizon bezala jendarteratuz, “genero kontsumoa” deitzen diogun praktika sorta edo bizi erak ezartzen dizkigute: tradizionalki nesKentzako kolore arrosa eta mutilentzako urdinetik abiatuta, askoz helduagoak diren kontsumo eremu (edo sektore) eta mota horietako formulatuko bertsioetara, sozializazio patriarkatuak gidatuta (adibidez,

gizonentzako teknologia, elikadura emakumeentzako eta abar). Kontsumoaren praktika hauek generoen estereotipoak indartzen dituzte, mugatzen eta kategorietan sailkatzen gaituzten dikotomiak dira, “gizonezkoak arrazionalak eta emakumeak emozionalak” izatea kasu, estereotipoetan oinarrituz emakumeak askoz kontsumitagoak direla ikusiz eta gizonezkoak erosketaren zentzudunen arduradun gisa.

antolatzeko, lurraldeetan bizitzeko, harremanak sortzeko... modu ezberdinak imajinatzeko. Gaur egun, merkatuak daude gizartearen erdigunean (gizarte kapitalista da gaur egun, hazkunde ekonomikoarekin batera paradoxa menderatzaile bezala), eta uste dugu zaintzak gizartearen erdigunean jarrita pertsonen eta planetaren arteko harremanak eraldatu egingo liratekeela, egiteko moduak aldatuz honela.

sozial, ekologiko eta ekonomikoak ditu ekoizpenak atzean? Bere materialak birziklagarriak, ekologikoak... dira? Nork fabrikatzen du hau? Badut berdinerako balio dezakeen beste ezer? Nik neuk ekoizten dut? Beste inork utzi edo eman diezadake?...

Zaintzak erdigunean jartzeari lotuta dauden alternatibei arreta berezia ipini nahi diegu, heteropatriarkatuan emakumeak horretarako sozializatuak baikaude. Kontsumo eraldatzaileak jendartearen transformatzea bilatzen badu, feminismoak ezinbestekoak dira aldaketa horretan, ezagutza eta hamarkada askotako praktikak gehitzen dituztelako eraldaketa sozialean begiraden aniztasunetik, norbanakoek beste pertsonen kiko baldintza berdin eta zuzenetan munduan egoteko modua aukeratzeari sustatuz. Horregatik, KKE-ren ikuspegiari bizimodu asegarriagoan laguntzen dio, hobeto bizitzeko aukera eskainiz, modu sinergikoago batean gure beharrak aseiz.



[Altekio | Argazkia: Ana Pardo]

Zeintzuk dira Kontsumo Kontziente eta Eraldatzaileak feminismoari egindako ekarpenak? Eta alderantziz?

Kontsumoaren ohitura aldaketak eta aniztasuna lehenesten den espazioen sorrera, pertsonen kiko eta beste izaki biziduneko zaintzak; erabiltzeko, ekoizteko eta kontsumitzeko beste logikak... Feminismoa praktikatzeko egotea da, eta hausnarketa berriei aukerak irekitzea. Ekofeminismoak proposatzen duen bezala, zaintza sarea izan gaitezke⁵, jendartearen orde. Hitz joko honek esan nahi duena, errealitatean, zaintza bizitzen erdigunean egotea da, eta zaintza lanak pertsona guztien artean zuzenki banatuta egotea, hortik abiatuta

Eta aldi berean, begirada feminista batetik kontsumo kontziente eta eraldatzailea ikusterako orduan, era honetako eztabaidagaiak galdetu diezaiokegu gure buruari: zer nolako harremanak sustatzen ditu produktu edo zerbitzu horrek edo bere praktikak (berdintasuneko edo zuzenak diren harremanak daude?) eta nola dago banatuta boterea ekoizpen espazio horretan, autoenplegu kolektiboan edo erabilera konpartituan? (Hau da, kontsumo kooperatiba horretan, edo objektu hori ekoizten den enpresa sozial edo solidarioan, edo truke sarean, eta abar)? Eta nola daude banatuta zaintza eta ardura lanak, zein harreman sustatzen dute pertsonen eta gorputz edo osasunaren artean... Hauek dira kontsumo kontzientearen inguruan hitz egiten dugunean ohikoagoak diren galderak: erantsi diezazkiokegunak: Hau behar dut? Nondik dator produktu hau, nola izan da garraiatua, zelako eragina izan du garraiatze horrek? Zein baldintza

Zer egin liteke eraldaketa horretan aurrera egiteko?

Kontsumoa ez da eraldatzeko era bakarra ezta nagusia, garrantzitsuagoa da akaso ezagutzen elkarriketa, sareen artikulazioa eta mugimendu sozial ezberdinekiko konexio forma ezberdinak, feminismoak nabarmenduz honela. Baina normalean gure kideak diren Opciones aldirikoen dioten bezala, ez dugu mundua kontsumotik bakarrik aldatuko, baina jendarte aldatzen bada, ziur kontsumoa aldatu den gauzetako bat izango dela, edo aldatzeko eraldatu beharko dugula.

Aldaketa hori eskala ezberdinetan eman daiteke: maila pertsonalean, gure harremanetan, parte garen taldeetan, maila sozialean, eta abar. Baita mekanismo ezberdinen bidez ere, auto-antolakuntza kolektiboa, politika publikoak, praktika pertsonalak... Kontsumoan ikuspuntu feminista txertatua duten geroz eta ekimen eta praktika gehiago existitzen dira. Zorion eta eskerrak guzti horiei! ■

⁵ Hiritartasuna eskubide unibertsal gisaren inguruan gehiago jakiteko, martxoak 8ko manifestua kontsulta daiteke “8 de marzo, día de las mujeres: hacia una ciudadanía que haga del cuidado de la vida responsabilidad de tod@s y liberación de muchas” http://www.caesasociacion.org/feminismo/ficheros/derecho_universal_ciudadania.pdf

Xochilt Acalt. Nikaraguako esperientzia bat

Mertxe Brosa, Andoainekoa da jatorriz, eta berak esaten duen bezala, Nikaraguara joan zen duela ilargi asko (31 urte) eta Xochilt Acalt Zentroa sortu zuen, ekoizpen jasangarriaren arloan lan egin ez. Xochilt Acalt Mugarik Gabeko bazkide da Nikaraguan duela 22 urtetik.

Zer da Xochilt-Alcat (XA)?

Xochilt Alcat emakumeen behar praktiko bati erantzuteko sortu zen Emakumeen Zentro bat da; biziraupena. Emakumeak uteroko zerbikalen minbiziz hiltzen ari ziren, ez zuten informaziorik, nahi gabeko haurdunaldi asko, eta abar. 22 urtetan gure ikuspegi handitzea eta bilakaera eman da: emakumeentzako ahalduntze prozesu integralak sortzetik, komunitatearen garapenerako dinamika sakonago batera, tokiko garapenaren ikuspuntutik eta oraindik ere emakumeen ahalduntze prozesuak inbertsiorik handienak izanda.

Emakume asko menpekotasun eta bazterketa identitateetik atera zirela ikusi genuen, eta haien komunitateetako garapenaren aktore izateko unea iritsia zela. Emakumeak haien lidergo rol berrietan ulertuak izan zitezten gizonetako liderrak maskulinitatearen deseraikitze prozesuekin laguntzeari ekin genion.

XA-ren programek emakumeen ahalduntzerako tresna estrategikoeekin zerikusia dute: *hezkuntza, osasun sexual eta ugalkorra, eta prebentzioa; genero indarkeriaren kontrako borroka, komunitateen garapena, ingurumenaren garapena eta ingurumen zein ekoizpen ereduak.*

Horrez gain, emakumeen ondarearen alde egiten dugu, haien lurren titular bakarrak izan daitezten. Horrek segurtasun emozionala ematen die. Orain, gizonak argi dute harremana eteten bada beraiek direla alde egin behar dutenak. Inbertsioren bat egoteko haien izenean egon behar da soilik. Haien senarren izenean badaude zati bat uzteko konbentzitu behar dituzte. Logikoki, hori lortzea kostatu zitzaigun, baina gaur egun gizonak immigrazioa itzultzen ari dira, emakumeari segurtasun emozional gehiago ematen diolarik horrek, kezka partekatze aukera, eta garapenerako aktore izateko denbora gehiago.



Hemen kontsumo kontziente eta eraldatzaileari buruz hitz egiten dugu... Nikaraguako errealtatean logikarik izango al luke kontzeptu honek?

Ala logikoagoa al litzateke “KOMUNITATE edo BIZITZA JASANGARRIAGOEN” inguruan hitz egitea?

Enpresa transnazionalen eragina eta “txatarra janaria” deitzen diogunaren aurrean, *ekonomia eta elikadura berlokalizatzea* proposatzen dugu. Tokiko janari eta edarien kontsumoa sustatzeko komunitatean bertan egiten diren azoketan elkarte komunitarioak laguntzen ditugu. Egun, lehen baino ekoizpen dibertsifikatuagoa dago, artoa eta basartoa (garia) soilik ekoizten baitzen lehen. Ekoizpen eredu berri, ekologiko, anitz eta jasangarriagoa den aldetik, logikoki, elikadura asko hobetzen da. Eta ez hori bakarrik, gainontzeko komunitateari elikadura osasuntsu baterako bidea ematen baitzaio, zinez bidezko prezioekin.

Komunitatean haien araudi propioa sortzen ari dira baliabide naturalen babesa eta erabilera kontrolatzeko, segurtasuna ematen baitute eta ongi bizitzeko funtsezkoak baitira. Joera basotzea da, ibaien berreskurape-na, uraren begiak, suteen jaitsiera, errekan ura urte osorako bermatzea, galdua zegoen zerbait baitzen; eta eskolak sustatzea, besteak beste.

Beste alde batetik, *osasuna* dago. Emakume gazteen Sareak lan bat abiatu du preserbatiboekin sexualitateaz gozatzeko haurdunaldi arriskurik gabe. Jada ez dute gizon batek beste toki batean sartzeko etxetik ateratzea espero, orain ikasi nahi dute, gozatu, haien lur saila sortu, adibidez. Bikote baten ondoan ego-teak muga izan gabe.

Horri *osasun komunitarioaren* prebentzio lana gehitu behar zaio. Komunitate bakoitzean osasun sustatzaileak existitzen dira, familia bakoitzarekin lan bat egiten dutenak: metaketa, osasun egoera, prebentzio kanpainak, eta abar. Herriko senda

belar naturalak gida batean batu ditugu, sustatzaileengan giza eta animalia medikuntzaren erabilera indartzeko.

Teknologikoki, energiaren gastua %50 murriztu dugu Zentroan eguzkitik eratorritako energia fotovoltai-koa dugunetik. Modu eraginkorrean baliabide naturalak aprobeztatzeko teknologiak sustatzen ditugu: hila-bete lehorretarako euri ura eta ur begiak biltegitratzeko sistemak ezarri ditugu. Ureztatzeko tanta sistemak erabiltzen ditugun bitartean.

Enpresa transnazionalen eraginaren eta “txatarra janaria” deitzen diogunaren aurrean, ekonomia eta elikadura berlokalizatzea proposatzen dugu.

Zeintzuk dira “bizitza jasangarri-tan” emakumeek egiten dituzten ekarpenak? Jasangarritasun honek zertan indartzen ditu?

Haiek dira sustatzaile nagusienak, oso sortzaileak dira. Emakume hauek txiroenak ziren eta elikadura bermatzeak, uraren eskuragarritasunak edo biltegitratze sistemak kezka eta esfortzu gutxiago ekarri dizkie. Horrek autoestimuan eragin zuzena du. Haiek dira aintzat hartzen diren ekoizpen ereduaren barnean besteei jakintza transmititzen dietenak. Aldaketa horietatik ikuspegi aldaketa-ri, duintasunari ... ekarpen handia egiten ari dira, jasangarritasunarekin zerikusi handia du, bizitzarekin. Egunerokotasunean duten botereaz eta hartzen duten lekuaz jakitun dira, nola familian hala sozialki dituzten lidergo rolez ere.

Aldaketa bakarrak ez dira emakume eta gizonezkoen arteko harremanetan soilik eman; tokiko garapenerako eskolatik (XAren beste ardatz estrategiko bat) igaro diren elkarte

komunitarioek txikitatik umeen-tzako tailerrak ematera joaten dira. Lehen XA komunitateko emakumeen %20ra iristen bazen, orain komunitate osora ailegaten da. Elkarte komunitarioekin koordinatzen gara eta behar berriei zeinek heltzen dien ikusten dugu. Gure papera komunitatea errazteko emakumeak formatzeari bideratzen ari da gehiago.

Bizitza duinen eredu jasangarri eta integral honek indarkeria matxisten maila murriztu duen ondorioztatu al duzue?

Bai, nola ez. Orokorrean, antolatutako emakumeek lehen zegoen indarkeria mota jada ez dutela sufritzen esan nezake, eta amatasuna neskatilek erabakitzen dutela. “Jó-venas” programan antolatuta daudenen artean ez duzu seme-alabarik duen 13 edo 14 urteko emakumerik topatzen. Orain 23, 27... urterekin umeak dituztenak topatzen ditugu, eta hala ere oso gutxi dira. Aldaketa funtsezkoa da.

Intzestuaren inguruan, han oso larria dena, 11 urteko neskatilak programetan txertatu ahala, arazoari aurre egiteko eta salatzeko tresnak dituzte. Gizonezko asko jada kartzelatuta daude, eta aurrekariak sortzen ari dira.

Emakumearen Komisariarekin ere koordinatzen gara. Goiko arduradunen aldetik emakumeen mugimendurekin ez koordinatzeko aginduak jaso dituzte, baina salaketa jarri nahi duten emakumeei arreta hobea eskaintzeko duten baliabide falta ikusita egiten dugu.

Eredu jasangarri hauen artean eta Nikaraguako beste herri zein lurraldeen artean ezberdintasunak nabari al dira?

Jakina, lurralde mailan eta ertamerikan erreferente bat gara. Jende askok bisitatzen gaitu laneko integritasunagatik eta ekonomiako emaitzak hain dira arrakastatsuak ezen eta mugimendu feministan zaila baita



halakorik topatzen. Emakumeen ahalduntze maila beste aspektu bat da ere. Mugimendu feminista nahiz eta herrialde osoan egon, ez dago garapen eredu honen ikuspuntutik, geroz eta emakume gazte gehiago dago kultura politikoarekin lidergo zaharrak birsortzen dituen.

Egungo ekoizpen eta kontsumo sistemak nola uste duzu eragiten diola?

Gehien eragiten dutenak multinazionalen mesedetarako eginiko erauzketa politikak eta akordioak dira; urrearen kasuan, esaterako, gobernuek gaur egungo prezioak bultzatzen dituzte eta orokorrean emakumeen zein komunitateen

bizi baldintzak betikotzen dituzte. Gure eskualdean, pertsona dirudunek haien bitxiak erakusteko aukera izan dezaten, ur begi onenak zituzten komunitateak zapuztu dituzte.

Azukre kanaberaz inguratu gaituzte eta gainera uraren erabilera oso handi batekin. Iaz adibidez, komunitate batean 28 pertsona hil ziren giltzurrunetako gaixotasunekin, lehenago kotoiak eta ondoren sojak, azukre kanaberak eta arrozak izandako fumigazioen ondorioz. Sekulakoa da. Giltzurrun gaixotasunengatik heriotza gehien dituen udalerrria gara. Politika transnazionalekin zerikusia du, kostu ekonomiko baxuagoko proiektuak aukeratzen dituztelako, baina ingurumen kostu handia-

goak, biztanleriaren lekualdatzeak, komunitateen desagertpenak, eta abar dituenak. Ez dute kutsatzen bakarrik, *murriztu* ere bai. Deuseztatu egiten dituzte.

Nola egin ditzakegu Nikaragua eta Euskal Herriko emakumeen arteko fronte edo borroka komunak?

Lehendabiziko gauza batzuk besteengandik ikastea litzake: ekimen motak, ikuspegiak, eta abar. Eta uste dut badirela adostu daitezkeen gauzak eta bi munduetan egin litezkeenak. Elikadura osasuntsuaren kontua elementu komuna da, Elikadura Burujabetza. Ekimen oso positiboak existitzen dira, kontsumitzailerik eta ekoizlearen arteko harreman zuzena bezala, eta bitartekariak ezabatzeko ekimenetan nola aurreratu ikusi beharko litzateke, eta ekoizten dena kontsumitu, kontziente izan, ez kontsumitu kontsumitzeagatik, baizik eta militanteki ere, egiten ari garen ekarpen horretan sinetsi. Horrek laguntzarik behar ez izate handia ematen dizu, zure elikadura eta osasunaren kontrola berreskuratzeko ematen duen botere handiarekin batera.

Era berean, ezinbestekoa da kontsumitzen diren produktuen inaktuarekiko kontzientzia hartzea. Bitxien adibideari helduz... zein baldintzetan ekoitzi edo atera diren galdetu, petrolioaren erabilera eta kontsumoa birplanteatu, dende transnazionalekin duten inplikazioa aztertu, Hegoaldeko herrialdeetan, Latinoamerikan, multinazionalak egiten dituzten barrabaskeriak erakutsi eta zabaldu. ■

Emakumeontzat espazio bat

Arantxa Arrien baserritarra, Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna (EHNE-Bizkaia) sindikatuko kide aktiboa ez ezik, Etxalde eta Via Campesinako militante nekazaria izan da urte askoz. Duela zazpi urtetik Arabako Ozaeta herrian bizi da. Bertan, baserritar zereginak, emakumeei espazio propio bat ahalbidetzeko asmoz, Ozaetako Kontsumo Taldearen sortzearekin eta inguruan dituen gazteek nekazaritzaren baitan ahalduntzen joateko lanarekin uztartu izan ditu.

Ozaetan ekindakoa gogoratzen ...

Herrian emakumeei zuzenduriko gauza esanguratsuak sortu ditugu, betiere, ekintza guztiak hauen ahalduntzea ahalbidetzeko jo muga izan dute. Hala ere, gaur egun, gure ekintzen indar-gunea, arrazoi ezberdinak medio, desbideratu egin da. Patriarkatuak eta neoliberalismoak gizartea arautzen duen heinean, hauek, herririk txikienean ere emakumeok pairatzen ditugun desplazamendu, marjinazio eta indarkeria finaren erantzule izaten jarraitzen baitute. Eta erasoan aurrean norberak ere tartea hartzen jakin behar du.

Pluralean hitz egiten duzu ...

Bai, egia da. Izan ere, duela zazpi urte etorri nintzela Ozaetara. Garai hartan inguruan GaraiOn proiektua sortzera hainbat neska-mutil etorri ziren ere, eta bertako zenbaitzuekin batera modu independentean herriko emakumeen egoera eraldatzeko ekintzak egiten hasi ginen.

Herriko emakumeentzat espazio bat; OKT

Aurreneko urte haietan, egiteko ugari zegoen, etorri berriak zirenekin elkartzen nintzen askotan, eta emakumeoi espazio propio bat eskaini eta izan ahal izateko zer egin genezakeen ideiarekin batera, Ozaetako Kontsumo Taldea (OKT) apustua martxan jarri genuen.

OKTa ekonomato bat da, non tokiko eta jasangarriak diren irizpideei jarraiki, herrikoen erosketa beharrak asetzen dituen. Honetaz gain, emakumeei kalean espazio propio bat izateko eta kudeatzeko aukera eskaintzen du.

Ordu arte herriko emakumeak ez ziren kalean ikusten, gatza erosi behar bazuten ere, hiriburura joan behar ziren eta, mugikortasun aukerak gizonen edota seme-alaben esku zeudenez, hauen menpe zeuden momentu oro.

Emakume adinduak, adibidez, etxetik irteten dira. Lehen, duela zazpi urte ez ziren kalera irteten; domeketan mezetara joaten ziren, kafea hartu eta etxera buelta egiten zuten. Egun, beste modu batera, baina irteten dira.

Nahiz eta herriko emakumeen ahalduntzearekin loturiko helburu inplizituak izan, OKT sortu genuen talde eragilean ez geneukan postura feminista jakin bat. Guztion parte hartzea eta lana ongietorria zen beti. Denborarekin, emakumeen lana, presentzia eta parte hartzea medio OKTk herrian espazio bat lortu zuen. Gizonak Kontsumo Taldearen kudeaketa eramateko prest agertu ziren ere. Haatik, lana gogorra eta irabazi ekonomikorik ez zeudela ikustean, ez ustekoa eraman ez ezik, bertan behera utzi zuten parte hartzea. Egun, herriko emakumeei esker mantentzen da espazioa, zerbitzu kolektiboa eta elkarlana.

Beraz, patriarkatuak arautzen jarraitzen du (administrazioa): ibilbidean aurkitutako mugak, trabak, nekeak.

Ozaetan, edozein esparru dela edo ez dela, emakumeok ez daukagu ordezkariarik (politika, kultura, landa ...), are gutxiago, administrazioan edota udal kontseiluetan. Emakumeen presentzia oso pobrea da eta parte hartzen dugunean ere, ez da emakume bezala egiteko. Hots, esateko daukaguna besteak entzuteko, baizik eta politikoki emakumeak egotea zuzenena denez, bertan egoten uzten gaituzte. Alabaina parte hartzea mugatua ez ezik irreal da. Espazio hauetan gizonen jarrera emakumeoi gauzak zelan egiten diren erakustekoarena izan ohi da, ez entzuteko emakumeon ekarpenak.

Kontutan izan gu ez garela 2.000.000.000 euroko inbertsioetan sartzekoak, 200 eurokoetan baizik. 200 euroko inbertsio hauek gizonen mahietan, hobe esanda, gizonen harturik dituzten espazioetan eta bertan ematen diren eztabaidetan, gutxietsiak dira. Are gehiago, ez dituzte kontutan hartzen eta guk proposamenak mahai-gaineratzean, hauetaz barre egiten dute, eta askotan, barre algarak eta gero entzun ez izanarena egiten dute. Hots, emakumeon proposamenak udalerrian.

Orduan, ez da guk ekarpenak egiteko espazio bat, non kontutan hartuko diren emakumeen iritzia edo egitasmoak. Nahiz eta ekintzaren batek gizonen filtroa gainditu, inork ez du bere gain hartuko, are gutxiago, gure



[Arantxa Arrien | Argazkia: www.larrabetzukoeskola.org]

beharretatik planeatutakoan edota eskatutakoan inplikatu. Finean, trabarik egiten ez den bitartean egoten utziko gaituzte emakumeoi, baina, praktikan sekula ez dute “gizonen” gauza bezala ikusiko emakumeon parte hartzea edota hitza.

Guztiok dugu zeregina mundua eraldatzeko.

Oso argi daukagu egoerak aldatu behar duela, baina ez gara ados jaritzen biderik egokienean. “Egiteko” eta “pertsonekin harremanak izateko” moduak berdintasuna oinarri izanik abian jarri behar direla deritzot; aldezturik jarrera zehatzik gabe, non norbanakoak berdintsu tratatzen ditugun. Emakumeen ahalduzko pertsonalaren kasuan berdintsu; bideak ahalbidetu norbanako guztiak berdintsu gisa tratatuz.

Patriarkatuari so egiteko emakume talde erradikalak eta ez hain erradikalak behar dira, gizon taldeak eta gizon-emakumeekin osaturikoak ere. Aldaketa aberastasunetik hasten

**Aldaketa
aberastasunetik
hasten da. Hala ere,
erlaldaketa eman dadin
hobeagoa da emakume
taldeetatik hastea,
hauetan baitago
aurrera pausu pertsonal
eta kolektiboaren hazia**

da. Hala ere, eraldaketa eman dadin hobeagoa da emakume taldeetatik hastea, hauetan baitago aurrera pausu pertsonal eta kolektiboaren hazia.

Momentu honetan Ozaetan emakume erradikalak behar dira, gu, feminismoaren ikuspegitik, lasaigoak baikarela deritzot. Era eta mota guztietako emakumeak; amonak ere. Hauek jantzita baitaramate herriko aztarna, kultur ondarea eta nekazal lur hauen jakituria familien zein kolektiboaren bilakaeran.

**Emakume taldeetan lan egiteak
uzta oparoa dakar.**

Emakumeok emakume taldeetan jardutean irabaziak besterik ez ditugu lortzen. Izan ere, gure artean soilik lan egiteak, beste edozein kasutan ematera heltzen ez den ahalduzko pertsona ahalbidetzen du. Argi izan behar dugu eta kontzientzia hartu gainera, emakume taldeetan egiten den lanak aurrerapauso pertsonalak ez ezik, komunitatearen hobetzea dakarrela.

Egoera honen aurrean, herriko emakumeek espazio propio bat edota kontseiluetan toki erreala izatearen apustuak aurrera jarraitzen du; OKTak kutsu parte hartzailea izaten jarraitzen du ere, baina, emakumeak ez gara sentitzen hain goxo edo emakume espazio batean bagaude bezala. Nekearekin topo egin dut, eta militantziaren intentsitatean gutxitu ere. ■

KONTRAPUBLIZITATEA

Kontrapublizitatea erresistentzia kulturalako era berritzaile eta indartsua da. Neurrigabeko enpresa praktiken eta eredu ekonomiko menderatzaileak gidatzen gaituen bizi estiloak salatzen asmoz, kontrapublizitatea publizitate mezu zehatzei esanahia eraldatzeko, oztopatzeko edota itxuraldatzeko ekintza izatera hel daiteke.

Kontsumismoaren, gure espazio publiko eta pribatuaren enpresa handien inbasioaren eta emakume eta gizonen giza eskubideen urraketa sistemati-koaren aurrean pentsamendu kritikoa sortarazten laguntzeko arma politiko gisa, tresna kontrapublizitarioak erabili eta sortu ditzakegu




Lurra lantzen zuen bitartean "fusilatu behar naute" abesten zuen afrika tropikaleko beltz-txiki hura naiz



Maputheen lurra ez dago salgai / Benettoneko benetako koloreak



Ezaba itzazu zure akatsak. Estetika besterik ez zara jada



SUNTSITU 4x4

Aurka egiten gaituen eskulan merkeko tokirik ez dago.

Jendea leku helezinetan esplotatu dezakegu. Multinazionalak heltzen diren tokira ez da inor iristen

Ematruke

Parte izan zaitezkeen proiektu bat

EMATRUKE Donostiako Emakumeen etxea elkarteko proiektu bat da, DendaGratix eta Denboraren Banku Feministak osatua. Nola ekonomia hala giza harremanen ikuspuntutik emakumeen bizi kalitatea hobetzeko sortu zen.

Emakumeen bizi kalitatea hobetzeko...

Ematruke alternatibak sortzeko behar batetik sortzen da, emakumeentzako eta emakumeengandik. Donostiako Emakumeen Etxea Elkartean (hemendik aurrera EEE) bizitzari eusten dioten oinarritzko beharren inguruan, hauek betetzeko moduez, asetzeko baliatzen dugun kontsumo motaz eta emakumeok kontsumoaren merkatuaren baitan jokatzeko dugun rolaz hausnartzen denbora bat generaman.

Denboraren Banku Feminista bat: emakumeengandik, emakumeentzat eta emakumeekin

Hasieran Denbora Banku Feminista zen (DBF), politika feministen posizionamenduarekin esplizitua izan gabe. Baina, urtebeteko ibilbidearen ondoren, Denbora Bankuaren izaera biziak eta dinamikoak zer izatea nahi genuen zehazteko hausnarketa berriz hartzea eraman ez ezik, emakumeek adierazitako beharrei erantzuten bazien jakiteko aukera izan genuen (feminista? Misto?...). Lehentasuna eta funtsezkoena **emakumeak elkartzeko espazio bat** izatea zen, erabakitze aukera ematen zuena. Tradizionalki sistema kapitalista heteropatriarkalak ezarritako balio gutxieste historikoaren aurrean gure ezagutza eta denbora balioan jarriko zuena. Gutaz hitz egin nahi genuen, nola tratatuak izan nahi dugun jakin nahi genuen, baita nola tratatu nahi ditugun ere.

DBF osatzen dugun emakumeen zati handi bat proposamen berriak sortzeko prestutasuna dugun emakumeak gara, krisiaren testuinguruaren markoan zein hortik harago proiektu alternatibo baten parte izan nahi dugunak. Ez geunden irtenbideak jasotzeko itzarroteko prest, berauen eraikuntzaren parte izan nahi genuen. **Dirua gaindituko zuen erronka bat** nahi genuen,

emakumeek egindako **lanari balorea emango ziona** eta merkatuak urte luzeetan zehar inposatutako baliogabetzearen zein gupida, ahots eta bozik gabe gauza bihurtzeko ezarritako rol patriarkalen aurrean proposamenak sortuko zuena.

Denbora Banku Konbentzional eta Denbora Banku Feminista baten arteko aldea... JABEKUNTZA

DBFn emakumeak eta berauen ahalduzko pertsonala daude erdigunean, arlo pertsonal eta kolektiboan eraldaketaren eraikuntza soziokulturalaren parte baitira. Gure jakintzak erdigunean jartzea eta hauei balioa ematea funtsezkoa da DBFren baitan dauden ahalduzko prozesuetarako.

Garrantzitsua dena ikusteko beste modu bat da, merkatu kapitalistak irabazi ekonomikoetan begirada eta balioa jartzeko sarrarazitakoa ahantziz, edo elkartruke zein ahalduzko tresna gisa.

DBFak ez ditu inolaz ere gizonezkoak baztertzen, baina emakumeentzako espazio bat sortzen ari garela ulertzen dugu. Ez da baztertzeko ekintza bat, ez dugu momentu batean ere ez hori planteatu. Gure jarrera eta helburua emakumeak erdigunean jartzea da, eta argi dugu xede hori egun talde misto batean lortzea oso zaila dela, edo ezin dela eman.

Sareak ehotuz

DBF **emakumeen arteko ezagutza gunea da eta sareak ehotzea** du estrategiatzat emakumeen nortasun anitzetatik esperientziak partekatzeko (jatorria, adina, eremua ...), modu demokratiko eta kolektiboan existitu daitezkeen zubiak sortuz.

Konfiantzatik, berariazkotasunetatik, ezagutzetatik eta gaitasunetatik abiatzen den emakumeen gune ireki baten parte gara, momentu berdinean berauek trukatzeko ditugularik. Trukerako unitate bakarra denbora den truke zerbitzua izaki, emakume guztiak oinarri berdinetik abiatzen gara, eta zerbitzu guztiek balio unitario bera dute; denbora. **DENBORA da balioa benetan jartzen duena.**



[Ematrakeren aurkezpen bat | Argazkia: Emamtruke]

Abstrakzioetik praktika ukigarria

DBF etxeko ekonomian aurrezteko tresna garrantzitsua da, zerbitzuak ordaindu edo merkatuan bilatu beharko bagenitu, akaso askok ezingo genituzkeelako ordaindu. Zerbitzu praktikoekin datu base bat sortzeko aukera balego (lanpara bat aldatzea, masajeak, zainketa, konponketak, azterketak ...) hori litzateke ekonomikoki husteko eta sareak sortzeko moduetako bat.

DBFn izena ematen duzuenean eskaini eta eskatzen diren zerbitzuen zerrendaren parte izatera pasatzen zara, ez duzu beti eskaintzen edo eskatzen egon behar. Are gehiago, momentu jakin batean kide batek deitzen bazaitu eta ezin baduzu zerbitzua eman, ez da ezer gertatzen. **Ezetz esaten jakitea ikasketa prozesu bat da**, DBFn baitan ere lan-tzen dena emakume bakoitzak has-ten dugun ahalduntze prozesuaren parte bezala. “Besteei dena eman eta haien zerbitzura egon, baina ez

zuretzat propio” eraikuntza kulturalarekin hautsi behar dugu. Ezetz esatea prozesu bat da.

Denboraren Banku ia gehienetan eskaini ditzakezun zerbitzuak esatean zerrenda bat ematen dizute, eta hortik aukeratzeko esaten dizute. Hemen, prozesuak ezberdin funtzionatzen du: emakume batek DBFn sartu nahi duenean izen-ematea egiten du. Bertan, beraiek zer egin dezakeen eta zer ez planteatzen da, orokorrean, egin dezaketen guztia kontatzen dizu, baina, hasiera batean segurtasun ezetik esaten dute (*bai, hau egin dezaket...*

“Dirurik ez izan arren aberastasuna dugu. Askotan ez dugu dirurik behar, heldu eta trukatu ditzakegun zerbitzuak baizik”

baina... zuk uste duzu egiteko gai izango naizela?). Beraz, hemen emakumeek beraien inguruko erabakiak hartzea eta beraiekiko eta besteekiko ulertzeko pentsamenduak aldatzea indartzen dugu.

Rol eta estereotipo patriarkalak elkartrukean

Lan edo zerbitzu gehienak ugalketa zereginekin lotuta daude; zaintzarekin. Nahiz eta eskaria ez izan zainketena soilik. Eskaintzaren eta eskaeren errealitatea eraldatzea da finkatutako erronketako bat. Alabaina, ez da emakumeen ahalduntze prozesuan lehentasuntzat jo dugun gure ildo estrategikoetako bat.

Eskaintza zabala izaten saiatzen gara, eta ugalketako zereginak bakarrik ez eskaintzen. Horretarako DBFn parte hartzea indibiduala zein kolektiboa izan daitekeela sustatzen dugu. Adibidez, brikolaje taldea. Modu honetan, DBFn erabiltzailea taldea izango litzateke, baina zerbitzua

trukatzeko orduan eskari hori brikolaje taldeko edozein emakumek bete lezake.

DBFn seinalatu dugun beste gakoetako bat zerbitzua beharraren arabera ez ezik, plazeragatik ere bilatzea da. Emakume bat DBFn parte hartzera sartzen denean azpimarratzen dugun zerbait da.

Jasangarritasuna(k)

Jasangarritasun ekonomikoari dagokionez Ematruke proiektua EED-ren parte da, gaur egun ekofeminismo batzordearen parte gara. Etxearen parte izateak etxeak berak dituen baliabide propioak erabiltzeko aukera dakar; lokala, papera, fotokopiak, ordenagailua, proiektorea ... Horrez gain, aurrekontu txiki bat izaten da materialerako eta proiektuaren kudeatzaileak diren pertsonak sinbolikoki laguntzeko.

Gainontzeko jasangarritasunei dagokienez (gizatiarra, garaiari dagokiona ...) proiektuaren erroten sortutako eta momenturen batean EEDtik pasatako emakume zein talde guztiek osatutako emakumeen sarea dago.

DBFn edozein emakume da ongietorria

Edozein emakume sartu daiteke. DBFn parte hartzeko **ez dela denborarik behar** kontuan hartu behar da, ez da iraunkorki aktibo egon behar, ez eta gaitasun espezi-fikorik izan behar, aldagai geografikoa ere ez da bazter-tzailea. Garrantzitsuena eta ezinbestekoena **parte hartzeko motibazioa eta prestutasuna izatea** da.

Emakume batek sartzera erabakitzen duenean, bate-tik, mezu elektronikoei erantzuteko eta asanbladetan parte hartzeko konpromisoa hartzen du. Hauek talde propioarekiko eta bere funtzionamenduarekiko errespetuarekin lotuta daude, eta bestetik, talde eragileko emakumeekin elkartu behar da, hauek DBFko proiektua eta funtzionamendu kodeak aurkezteko. Azkenik, izen-ematea fisikoki eta webgunean betetzen da. Horretarako denborarik izan ezean, ez da DBFn sartzeko zure momentua.

DendaGratix... hartu edo utzi, baina ERABILI...

DendaGratix arropa, liburuak, oinetakoak eta bestelako osagarriak topa daitezkeen espazio bat da. Bere funtzionamendua sinplea da, emakume batek artikulua hartu eta utzi ditzake. Uzteak ez du hartzea suposatzen, eta alderantziz. Ez da ezer saltzen, dena da doan, baldintza bakarra hartutako erabiltzea da, eta Ematrukeko erabiltzaile bezala erregistratzea.

Ekonomikoki aurrezteko beste tresna bat.

Armairuetako barrenak birziklatzeko tresna izateaz gain, eta horrela arroparik ez botatzeaz gain, emakume asko pasatzen ari diren egoera ekonomiko ezberdinari erantzuteko espazio bat sortu da. Era honetan, aukera berdintasunean heldu diezaiokegu emakumeen beharrak, gureak, lehenetsi eta laguntzen dituen zerbitzu bati.

Alabaina, dendak ez du bakarrik arrisku ekonomikoan dauden emakumeen egoerari edo emakumeen zati bati erantzuteko espazioa izatea bilatzen. ■

Informazio gehiagorako:

Informazioa eskatzeko EED-ra deitu.
Telefonoa: 943483470

EED-ren programazioan, hilero edo bi hilero deialdi ireki bat egiten da proiektua azalduz edo ezagutzera emanez.

ematruke@emakumeenetxeakarte.org
helbidera posta elektronikoa bidali.

Baliabide interesgarriak



Nondik hasiko gara?

Hitz egin, mintzatu, galdetu, ..., bizitzeko behar duzunaz, erosteko behar duzunaz, giza eskubideak errespetatuz ekoiztua izan baden, iraunkorra baden, birziklagarria baden, ..., guztia kontzienteagoa izateko eta kontsumitzerako orduan, gure askatasun indibidualari mugak jartzeko.

Kontsumismoari aurre egiteko haur estrategiak (M^a Luz Prieto Salcedo):

- Bizitzan “ezin daitekeela guztia izan” irakatsi.
- Frustrazioarekiko beraien tolerantzia baxua handitu eta “ez” esan mugak jartzeko helburuarekin.
- Sortzeko gaitasuna suspertu eta, gauzak bitarteko gisa erabili ez helburu bezala.
- Elkarrekin beraien behar errealak eta lehentasunak, erabilpenak eta gauzen benetako balio hausnartu.
- Lana zerbait lortzeko ahalegin arduratsu gisa sustatu.
- Aurreztea suspertu eta aste-sariaren erabilpenari mugak jarri, dirua berehala xahutuko ez dela saiatur.

Aldatu ditzakezun zure gauza txikiak:

- Zure etxeko energia jada, euskal kooperatiba berriztatzaileekin, berriztagarria izan daiteke.
- Etxean aurreztu dezakezun komuneko ura, kontsumoan ...
- Garraio publikoa erabili dezakezun hoberena da, edo bizikleta.
- Arropa, etxetresna elektrikoak, egoera onean dauden bigarren eskuko asko daude, ...
- Tokiko produktuak kontsumitu.
- Elkarte baten parte egin.

Baliabide interesgarriak

“Consumo Responsable” webguneak (www.consumoresponsable.org) kontsumo kontziente eta arduratsu bat egiteko proposatzen dituen galderak ondokoak dira:

Erostera noana behar dut? Desio bat ase nahi dut? Libreki ari naiz aukeratzen ala erosketak konpulsiboak bat da? Zenbat ditut dagoeneko? Zenbat erabiliko dut? Zenbat iraungo dit? Nire gertuko pertsonaren bati edo norbaiti eska dakioket (lagunak, familia...)? Produktu hau gabe egon ninteko? Nik mantendulgarbitu/konponduko dut? Egiteko gogoak daukat? Kalitate onena eta prezio hobereana lortzeko informazioa bilatu dut? Nola deusezta dezaket produktu/zerbitzua erabiltzeari utzi ostean? Material birziklagarriekin eginda dago? Erabilitako lehengaiak berriztagarriak dira? Badut ordezka dezakeen gauzarik? Produktua nork eta nola egin duenaren inguruan informatu zara?

Gaur egun baliabide asko ditugu aipatutako galdera eta erantzunak errazten dizkigutenak, egunerokotasunean kontsumo arduratsu bat egiteko. Aldi berean, proposamen eta alternatibak bidez egunerokotasunean kontsumo arduratsu bat izaten laguntzen gaituztenak.

PROIEKTUAK

ConsumeHastaMorir: Bizi garen kontsumo gizaritari buruzko hausnarketa bat da, bere instrumentu propioetako bat erabiltzen duena, publizitatea, zein punturaino hil daitekeen kontsumitzen erakusteko. Ikus-entzunezko kontra-publizitatea eta grafikoa lan-tzen dute, tailerrak ematen dituzte, edo beste kolektibo sozial batzuekin sorkuntza prozesuetan parte hartzen dute. Iturria: ConsumeHastaMorir

www.lettra.org

Fiare: Gure gizartearen eraldaketa suposatzen duen proiektuetara iristeko, pertsonak, familiarek eta erakundeek aurrezteko bitartekari finantzarioa izango den tresna bat eraikitzeke jaiotako banku etiko bat da. Diruaren balio soziala eta jarduera ekonomikoa erreskatatu nahi dugu, mundu justuago, gizatiarrago eta jasangarriago baten zerbitzura ipiniz. Iturria: Fiare

www.fiarebancaetica.coop

GoiEner: Goierrin (Gipuzkoa) sortutako proiektu kooperatibo bat da, energia berriztagarriaren kontsumoa sortzeko, energia burujabetza berreskuratzeko helburuarekin. 2013ko urritik elektrizitate berdea komertzializatzen du. Iturria: GoiEner.

www.goiener.com/eu

Me cambio: Zure eguneroko kontsumorako alternatiba etikoen gida bat da. Hornitzaile etikoen inguruko informazioa eskaintzen duen web plataforma bat (Finantza eta Aseguruak, Energia, Konexioa...) eta norberak kontsumo ohiturak nola aldatu ere azaltzen du, kontsumo arduratsu eta jasangarriago bat lortze aldera. Iturria: Me Cambio

www.mecambio.net

Opciones: Kontsumo Kontzientean berezitatutako al-dizkari bat da, batetik, kontsumo eta bizi estilo eraldatzailea izateko informazio praktikoa eta aplikagarria eskaintzen du, baita bakoitzak irizpide propioekin jokatzeke baliabideak ere. Eta, bestetik, eraldaketarako praktiken ikerketak barnebiltzen ditu hiru mailatan (indibidual-domestikoa, kolektibo-komunitarioan eta estruktural-politikoan). Iturria: Opciones

www.opciones.org/es/revista

Truke: Elkartasuna eta jasangarritasuna sustatzen dituen proiektu bat da, elkarlan kontsumoarekin komulgatzen du eta objektuen berrerabilpena sustatzeko teknologia berriak ematen duten aukera komunikatiboetan oinarritzen da. Horrekin batera, trukearen, oparien eta bigarren eskuko gauzen salerosketa bidez haien egungo kontsumo ohiturak aldatu nahi dituen herritarren komunitatea sortu eta sustatu nahi du. Iturria: Truke

www.truke.eu



IKUS-ENTZUNEZKOAK

Zentzuz Kontsumitu: Kontsumo arduratsuen, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoaren kontsumo ohituren, egungo kontsumo ereduaren alternatiben eta Gasteizeko biztanleen zein gazteen kontsumo praktiken inguruan topatutako ikus-entzunezko materiala. Materialen artean “La Cesta de Caperucita Roja” aurki liteke, tonu komikodun animaziodun ipuin bat kontsumoaren, elikadura burujabetzaren eta bidezko merkataritzaren inguruan eztabaidatzera zirikatzten duena

www.consumoresponsable.info/materiales/

Marmalur: Saretuz Sarearen bidez egindako ikerketa da, Kontsumo Kontziente eta Arduratsu baten alde lan egiten duten Gipuzkoako erakundeen kontsumo alternatibak aurkezten dituen, ekoizpena eta banaketa ekologikoa, bidezko merkataritza, zabor murrizketa, auzolana, elikadura burujabetza, banku etikoa... bezalako ardatz espezifikoetatik.

www.saretuz.com/index.php/multimedia/

Mugarik Gabe: “Decrecimiento y Buen Vivir” Bilbon 2011tik egindako “Deshazkunde eta Bizitza Ona” topaketetako edizio ezberdinetako dokumental bilduma da (<https://vimeo.com/73591323>). “Bienes Comunes”: Mugarik Gabe eta EHNE Bizkaiaaren dokumentala, elikadura burujabetza eraikitze bidean Euskal Herriko nekazari gazteen bidez onura komunaren defentsa biltzen duena (ura, lurra, haziak, ezagutza eta zainketa) (<https://vimeo.com/112073003>).

Dokumental gehiago aurki daitezke hemen:
<https://vimeo.com/mugarikgabe/videos/>

SAREAK

Zentzuz Kontsumitu: Setem Hego Haizea, Medicus Mundi Araba eta Mugarik Gaberen arteko aliantza, kontsumo arduratsu eta kontziente sustatzeko, egunero praktika gertuko bezala bidezko merkataritza eta elikadura burujabetza proposatzen dituen inguru lokal zein pobreziaz lurraldeetan globalizazio neoliberalaren inpaktu ekonomikoak, sozialak eta ingurumenarenak murrizteko. Iturria: Zentzuz Kontsumitu

www.consumoresponsable.info

Saretuz Sarea: Donostiako Kontsumo Kontziente eta Eraldatzailearen aldeko Sarea da (KKE). KKE erakitze kontsumo gisa sustatzen du, era berean amesten dugun gizartean bizitzera iristeko funtsezko estrategia eta tresna delarik: bizitza erdigunea izango den gizartea eta ekonomia bere zerbitzura izango duena, justizian oinarritua, emakume, gizon eta herrien arteko berdintasunean, elkartasunean, naturarekiko orekan, konpromisoan, kooperazioan, zaintzak banatuan... Iturria: Saretuz

www.saretuz.com

REAS: Elkartasun eta Alternatiben Ekonomia Sareen Sarea da. Euskadin 50 enpresa eta erakunde sozial baino gehiago batzen ditu, eta bere helburuetako bat giza garapen jasangarriaren ikuspuntutik eraldaketa soziala bilatzen duten proposamen kolektiboak sendotzea da, bereziki, ekonomiaren adar ezberdinak (finantzaketa, ekoizpena, komertzializazioa eta kontsumoa). Iturria: Reas

www.economiasolidaria.org

Nekasarea: Nola baserriarren hala kontsumitzaileen arteko sare bat da, produkzio eta kontsumo ereduaren eskutik galtzen ari garen elikatzeko eta harremantzeko modua berreskuratzeko interesa duena, geroz eta gehiago oinarritzen baita prezio baxuetan eta mentalitate pasiboetan. Elikadura Burujabetzara bideratutako proiektu bat da, ardura konpartitua eskatzen duena. Batetik, baserriarra astero adostutako produktuekin osatutako “saski” bat entregatzera konprometitzen da, eta bestetik, kontsumitzaileak adostutako denbora tartean sakia hartu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen du, barazkiz, esnez, ogiz, arrautzez, oilaskoz, haragiz... osa litekeena zehaztutako kantitateetan.

Produktu guztiak tokikoak dira, transgenikorik gabeak eta jasangarritasun irizpideen baitan ekoiztiak, ez bakarrik ingurugiroari dagokionez, arlo sozialean ere, gure elikagaiak ekoizten dituzten pertsonen baldintza eta soldata duinekin. Iturria: EHNE Bizkaia

www.ehnebizkaia.eus/index.php/eu/nekasarea

GLOSARIOA

BIDEZKO MERKATARITZA

Bidezko Merkataritza elkarte bat da, elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarritua. Nazioarteko merkataritza zuzentasuna areagotzea bilatzen du. Horretarako garapen jasagarrian laguntzen du, baldintza komertzial hobekiak eskainiz eta ekoizle zein langile baztertuen eskubideak bermatuz, bereziki Hegoaldekoenak. Bidezko Merkataritzaren elkarteak, kontsumitzaileengandik babestuta, ekoizleak laguntzeko aktiboki inplikaturik daude, nazioarteko merkataritza konbentzionaleko arau eta praktikak aldatzeko sentsibilizazio eta kanpainak garatuz. Iturria: WFTO, Bidezko Merkataritzaren Mundu Erakundea

DESAZKUNDEA

Pentsamendu politiko, ekonomikoa eta sozialeko korronea, produkzio ekonomikoaren murrizte erregular eta kontrolatuaren alde diharduena gizaki eta ingurumenaren arteko oreka-harreman berri bat ezartzeko helburuarekin, baina baita gizakien artean ere.

Iturria: Mugarik Gabe

EKOFEMINISMOA

Mundu naturalaren degradazioa eta esplotazioaren artean konexioa ikusten duen mugimendua da, baita menpekotasuna eta emakumeekiko zapalkuntza ere. 70. hamarkadaren erdialdean feminismoaren bigarren olatua eta mugimendu berdea sortu zuen. Ekofeminismoak feminismoaren eta ekologismoaren elementuak batzen ditu, baina era berean bientzako desafio bat eskaintzen du. Mugimendu berdetik giza ekintzek mundu bizigabearen duten eraginarekiko kezka hartzen du, eta feminismo-

tik gizartearen genero ikuspegia, emakumeak zapaldu, menperatu eta esplotatu egiten dituen heinean. Iturria: Mary Mellor, "Feminismoa eta ekologian"

EKOLOGIA

Grezieraz «οἶκος» oikos="etxea", eta «λόγος» logoa="ezagutza". Ekosistemen biologia da (Margalef, 1998, p.2). Izaki bizidunak, haien ingurumena, banaketa eta ugartasuna aztertzen dituen zientzia da; organismoen eta haien inguruaren interakzioak propietate horiengan nola eragiten duen ikertzen du. Ingurumenak propietate fisikoak barnebiltzen ditu, tokiko faktore abiotikoen batura gisa deskriba litezkeenak, klima eta geologia bezala, eta habitat hori konpartitzen duten gainontzeko organismoak (faktore biotikoak).

Ekologiaren ikuspegi integratzaileak organismoen banaketa eta ugartasun prozesuen ikerketa zientifikoa dela planteatzen du, organismoen eta energia eta materia fluxuen eraldaketaren arteko interakzioa dela erantsiz.

Iturria: Mugarik Gabe

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Beinjingean ospatutako Emakumeen Mundu mailako Konferentzian sehaskatutako terminoa da, emakumeen parte hartzea erabakitzeko prozesuetan areagotzeko eta boterera iristeko. Espresio honek hau ere barnebiltzen du: emakumeek botere indibidual eta kolektiboaren kontzientzia hartzea, duintasun propioaren berreskurapenarekin lotuta dagoena. Iturria: "Palabras para la Igualdad. Biblioteca Básica Vecinal". Ahalduntzea ezin da beste pertsonen emandakoa izan, pertsona bakoitza da ahaldundu behar

dena. Boterearen esanahia kontzeptu honetan ahalmen bezala ulertu da (beste pertsona batzuekiko botere diferentzia). Sortzen den boterea da, Kate Youngek planteatzen duen bezala eraldatzeko gaitasuna duena, eta indibidualtasunetik harago aldaketak lortzeko balio duena.

Iturria: Mugarik Gabe

FEMINISMOA

Etengabe eboluzionatzen duen pentsamenduaren korronea, sexuen arteko aukera eta eskubideen berdintasuna defendatuz. Mundua, botere harremanak, egitura sozialak eta sexuen arteko harremanak ulertzeko beste modu bat osatzen du.

Iturria: Mujeres en Red

KONTRAPUBLIZITATEA edo "SUBVERTISINGA"


Subertsio eta "advertising" kontzeptuaren fusiotik sortutako terminoa. Erresistentzia kulturalaren nobedade eta modu indartsua da. Problematika sozialak munduan zabaltzeko geroz eta gehiago erabili eta garatzen ari den erreminta bat da. Nola kontsumismoaren aurrean hala enpresa handiek gure espazio publiko eta pribatuetan egindako inbasioaren aurrean jarrera kritikoa bat sustatzeko.

Kontra-publizitate jarduerak, berez, mezu publizitario bat eragozteko, distortsionatzeko eta birdefinitzeko ekintza da, gehiegizko praktika enpresariala eta nagusitzen den eredu ekonomikora garamatzen bizimoduak salatzea helburua duena.

Iturria: Proyecto Squatters

KONTSUMISMOA

Nola berezki jotzen ez diren erosketak edo ondasun zein zerbitzuen kontsumoaren pilaketari,



hala sistema politiko eta ekonomikoak sustatzen duen aberastasuna eskuratzeko lehia talde sozial bateko status edo prestigioaren ikurrari atxiki dakiok e sanahia. Neurri handiko kontsumoak jendarte garaikidean baliabide naturalak eta oreka ekologikoak seriooki baldintzatzen ditu.

Kontsumismoak, neurrigabeko erosketak edo eskurapen bezala ulertuta, efektu eta ondorioak idealizatu egiten ditu bere praktikak asebetetze pertsonal, edo areago, zoriontasun pertsonalarekin lotuz.

Iturria: Mugarik Gabe

KONTSUMITZEKO JARRERA MOTAK

Low cost kontsumitzailea
Pertsona hauentzako prezioak pisu handia du erosketan (%51). Udalerri txikietan bizi diren gazteei erantzuten die profilak, 5.000 biztanle baino gutxiagokoei, edo hirietan langabe edo ikasle dabil-tzan pertsonari.

Woo-fi Kontsumitzailea
Woo-fi kontsumitzailetzat jotzen dira arreta pertsonalari garrantzia handiagoa ematen diotenak (%56). Arabako lurralde historikoko

profilari erantzuten dio; Gasteizen edo Donostian bizi denari, pertsona aktiboari, edo bere zereginetara dedikatzen denari.

4P kontsumitzailea

4P kontsumitzailea den pertsonak "P"-ren lau ardatzen oreka eskaintzen du (Profesionaltasuna, prezioa, produktua, eta gertutasuna). Egoera ekonomiko erosoago bat duen profil homogeneoari atxikitzen zaio.

Kontsumitzaile konbentzionala

Arreta pertsonalari eta prezioari pisu antzerakoa emateak ezaugarritzen ditu (%47.7); ohitua den kontsumitzailea da. Adin aldetik helduak den pertsonari erantzuten dio, batez ere Gipuzkoako lurralde historikoko udalerrietan bizi denari, ez hainbeste hiriburutakoei. Langabezia egoeran edo haien zereginetara erantzuten dioten dedikazioan egon litezke, eta haien maila sozioekonomikoa erdi-altu mailakoa da.

Gertuko kontsumitzailea

Profil honek komertzioaren kokapenari garrantzia handia ematen dio (%45). Euskal lurralde historikoko profilari erantzuten dio, heldua, lehen mailako ikasketadun eta ez-aktiboari.

Kontsumitzaile zalantzata

Arlo bakoitzean garrantziaren banaketa gutxi gora behera "homogeneoki" egiten du, eta beraz, detaile txikiei lotutako pertsona kontsumitzailea da. Donostian bizi den profil heldu eta ez-aktiboari erantzuten dio.

Kontsumitzaile abanikoa

Aukera eta sortan jartzen du enfasia (%49.7); produktuak erosteko aukera eta marken abanikoaren handitasunean. Profil gazteari erantzuten dio, Bilbon bizi dena, unibertsitate ikasketadun eta maila sozioekonomiko ertain-altu eta altuari.

Iturria: Ikusmer (Erosketen esperientziaren eta komertzioetako kontsumitzailearen asebetetze ikerketa) Saretuz-en.

KONTSUMO KONTZIENTE ETA ARDURATSUA

Kontsumo Kontziente eta Arduratsua egungo kontsumo eta produkzio sistema zalantzan jarriz hasten den hori da, pertsona bezala gure beharrak birplanteatzen dituen; eta ondasunen, elikagaien eta zerbitzuen kontsumo ohiturak murriztu eta aldatzen dituen. Alternatiba jasagarriak, lokalak eta gertukoak bultzatzea bilatzen du; eta elikagaien kasuan ekologikoak eta denboraldikoak izatea, beraien produkzioan eta garraioan ingurumenean izan lezakeen eragina txikitzeko helburuarekin. Gainera, pertsonen arteko desberdintasun soziala iraunarazten duen sistemarekiko kritikoa da, iparralde eta hegoaldearen artean, zein emakume eta gizonen artean. Guzti horrekin desberdintasunik gabeko produkzio eta kontsumo eredu solidario, justu eta zuzen baterantz aldaketa soziala eragiteko asmoa du.

Iturria: Saretuz

KONTSUMO KONTZIENTE ETA ERALDATZAILEA

Bizitzeko era ezberdinak bilatzea kontsumoak protagonismoa galdu dezan, osotasunean elkartzunez eta jasangarritasunez bizitzeari emateko. Kontsumo honen oinarritzko zutabeak hauek dira:

- **Kontsumoan etikoa izan.** Kontsumoan ondo eta gaizki zer iruditzen zaigun gure etikarekin baloratu ere, “errazagotzat” aurkezten zaizkigun aukerak hartu beharrean; merkeena, eskuragarriena, modakoena... bezala.
- **Erabakitzeko gidaritza hartu.** CR-ak erabakien hautaketa publizitatetik, mimetismo sozialetik edo norberaren interes partikularretan oinarritutako irizpideetatik egiten du.
- **Aldaketa sozialerako ekintza.** Munduan gustatzen ez zaizkigun ekintza asko daude: injustiziak, ingurumenaren degradazioa... Gure kontsumoak egoera horietako askorekin harremana du, horregatik, sozialki indartu nahi dugunarekiko koherenteak izan beharko ginateke.
- **Kontsumoaren aurrean jarrera aldatu.** Kontsumitzaile bat lortzea ez da marken arteko aukeraketa soil bat egitea bakarrik, ezta “berdea” soilik kontsumitzea, kontsumitzeko modu guztiak birplantatzea baizik. Galdetu diezaiozun lehendabizi gure buruari ea kontsumitzera goazenarekiko beharra edo desioa dugun, ondoren behar edo desio hori asetzeko zenbat modu egon litezkeen, eta azkenik, merkatua-

ren bidez izan behar izatekotan, aukera guztien artean zein iruditzen zaigun egokiena.

- **Liberazioa, ez obligazioa.** Ez datza “betebeharrei erantzutean”, ezartzen dizkiguten arauei jarraitzean; horrek errudun sentiarazten gaitu eta egin ezin dugunean aitzakiak bilatzea dakar. Kontrara, barrenetik uste hoberena dena uste duguna egiteko liberazioa sentitzean datza, aseago sentiarazten baikaitu, behar faltasuei lotuta ez egotera, oso ondo zergatik jarraitzen ditugun ez dakigun moda eta ohituretatik aske sentitzera, bizi dugun munduak nola funtzionatzen duen hobeto ulertzera, zuzenak iruditzen ez zaizkigun dinamiketan ez parte hartzera.

Iturria: Options

KONTSUMO ARDURATSUA

Produktu eta zerbitzuen aukeraketa kalitate eta prezioan oinarrituta bakarrik ez egitea, ingurumenean eta jendartean duten eragina eta ekoizten duten enpresen ibilera ere aztertuta gauzatzea. Modu berean, gutxiago kontsumitzea suposatzen du honek, beharrezkoa dena soilik kontsumituz eta beharrezkoak ez diren beharren sorkuntzan publizitateak duen eraginari arreta jarritz.

Iturria: Consumo Responsable

KONTSUMOIA

(Latinez: gastatzea edo suntsitzea esanahi duen *cosumerea*) Gastatu edo kontsumitzearen ekintza eta efektua da, izan produktuetan eta bizitza galkorra duten bes-telako generoetan, edo ondasun

eta zerbitzuetan, energia bezala, kontsumitzea lehen eta bigarren mailako beharrak asetzeko produktu eta zerbitzuak erabiltzea dela ulertuz gero. Kontsumo masiboak kontsumismoari bide eman dio, eta kontsumo gizartea deitutaokari.

Iturria: Mugarik Gabe

LABORANTZA EKOLOGIKOA

Nekazaritza ekologikoa lurraren osasuna, ekosistemena eta pertsonena mantentzen duen produkzio sistema bat da. Prozesu ekologikoe-tan, biodibertsitatean eta tokiko baldintzetara egokitutako zikloetan oinarritzen da, kaltegarriak diren efektuak dituzten produktu kimikoak erabili beharrean (ongarriak, pestizidak, antibiotikoak...). Laborantza ekologikoak tradizioa, berrikuntza eta zientzia uztartzen ditu ingurumena zaintzeko, mantentzeko eta lurraren emankortasuna areagotuz propietate natural guztiarekin osatutako elikagaiak eskaintzeko. Horrez gain, bidezko harremanak sustatzen ditu, baita emakume zein gizonezko kontsumitzaileen bizi kalitatea ere, ekologikoaren inguruko langileenaz gainera.

PATRIARKATUA

Maskulinoak femeninoaren gaineko boterea mantentzea bermatzeko ezarritako antolaketa sistema sozial eta instituzionalizatua (egitura politiko, ekonomiko eta sozialean bidez).

Iturria: Mugarik Gabe



MAITASUNAK EZ DU ARRAKASTARIK GIZONAREN ERGELTASUNA
BERE EZJAKINTASUNEAN GORDETZEN DENEAN AMA LURRAREKIKO ERRESPETURIK GABE
GIZADIA APURKA-APURKA BERE AXOLAGABETASUN BETEAN ITOTZEN DA.

GURE AMA LURRA, ARIMA HANDI BIZIDUNAK
BERE BIHOTZAREKIN BEROTZEN ETA ELIKATZEN GAITU,
BAINA, GU EZJAKINTASUNEAN MURGILDURIK,
BERE ESKAEREI ITSU ETA GOR GAUDE

AGIAN, ZAIN EGONGO AL GARA GURE AMA LURRAREN
FRUITU GAIXOEK POZOITU GAITZATEN?

EZ DAGIGUN UTZI BERAK GU IRAUNGITZEN,
GOGOTSU ZAIN DEZAGUN GURE AMA LURRA,
BERAK, MAITASUN ETA ENERGIAZ ELIKATZEN BAIKAITU

BERE ARIMA HANDI GAIXO ETA, BIHOZMINAREKIN DAGOEN BITARTEAN,
NIRE ESPIRITUA DARDARKA SENTITZEN DUT,
ETSITU EGITEN DA, BERE SEME-ALABAK ESKERGABEAK DIRELAKO,
EZ DUTE BERAIEKIKO ERRESPETURIK, ARE GUTXIAGO BEREKIKO

BITARTEAN ASTIRO ETA ISILTASUNEAN HITZEN DIHARDU,
NIK, NIRE BIHOTZ LARRITUAN ERORTZEN DIREN,
BERE URUBIA, BERE BIHOZMINA ETA BERE MALKOAK SENTITZEN DITUT

MAITASUNAK SOILIK, GUK GURE BURUA ERRESPETATZEN DUGUNEAN ETA
AMA LURRA ERRESPETATZEN DUGUNEAN ARRAKASTA DU.

ARDURAGABETASUNAREN AMETSETIK ESNATZEN BAGARA BIZITZAK JARRAITUKO DU BAKARRIK.
NIK ARNASA HARTZERAKOAN BERE SUFRIMENDUA SENTITZEN DUT,
NIRE GAINEAN ERORTZEN DEN ETA KONTSUMITZEN NAUEN EURI AZIDOA,
HEGAZ EGITEN DUEN BERE MINAREN OIHARTZUNA ENTZUTEKO ERREGUTZEN GAITUEN BITARTEAN,
GURE BELARRI GORRETATIK, BIHOTZETIK HAIN URRUN DUGUN BURURA

Nekazari gazteen arteko topaketetan sortutako irudi eta gogoetak

(Gernika, 2014ko urria)





HAZIEN

ETA HERRI

JAKINTZAREN


ZAINDARIAK





NEKAZAL KULTURA

BULTZATU



HIRI BARATZAK 
"AISI ALDIRAKO BARATZAK"?

Biribilguneke lorategiak
Baratz publikoak 
BINURTU



HESITU


ELIKAGAIAK



KAPITALISTIOAK
guztia hezitu nahi du



MUGARIK GABE
www.mugarikgabe.org

Zure ekarpenari esker lanean jarraitzen dugu.

Mugarik Gaberekin kolaboratu dezakezu
urteroko kuota batekin,
diru dohaintza puntualekin edo elkartasun legatu batekin.

Horrela, hezkuntza eta lankidetzarekin bitartez,
pertsona guztientzako justua den mundu baten alde
egingo duzu.



Diru-sartzeak web gunean edo honako kontuan:
LABORAL KUTXA ES71 3035 0083 22 0830701234
Gran Vía 1 (Bilbao)

FIARE ES36 1550 0001 2000 0068 8622